

AZKUE ETA BARANDIARAN BATZEN DITUEN LIBURUA

Mithen, S. *Neanderthal kantariak* [itzultzailea, Irati Yetano], Bilbo: Klasikoak, 2008. 466 orr. ; 24 cm. -- (Klasikoak 1991)

Jatorrizko izenburua: *The singing Neanderthals*

Ezaguna denez, Resurreccion Maria Azkue musiko frakasatu bat izan zen : haren bigarren operaren erabateko porrota izan zen Filologian erabat murgiltzeko erabakia harrarazi ziona bestelako kezka maiteago batzuk (musika !) bertan behera utziz. Kontua aski garbi azaldu zigun bere garaian Jose Antonio Arana Martixak eta erabat baieztatu du ondoren Jurgi Kintanaren doktorego tesiak. Baina bada beste kontu bat ere Euskaltzaindiaren Bibliotekari jaun argiak bazkalondoko elkarrizketetan atsegin handiz kontatzen duena, alegia, berak Jose Migel Barandiaranekin izandako harreman pertsonala. Azkue eta Barandiaran, beharbada euskal kultura modernoaren bi zutabe nagusiak. Jose Antoniok biak ezagutzeko aukera izan bazuen ere, badirudi haien bien arteko harremana txikia eta hotza izan zela. Eta neuk neuri buruari behin baino gehiagotan galdetu izan diot bien artean ez ote dagoen zubirik, orain arte ikusi izan duguna baino sendoagorik. Erantzuna ondoren iruzkinduko dudan liburuan aurkitu dut.

Klasikoak bilduma duela ia hogeitau urte abiatu zen europar pentsamenduaren lan nagusiak euskaratzeko xedearekin ; hamabost urteren bueltan jarritako helburua funtsean bete zuela esan daiteke, ehun bat izenburuko zerrendan ikusten baititugu Platon, Aristoteles, San Tomas, Rousseau, Darwin, Nietzsche eta abarren lanak. Hortik aurrera badirudi erabaki zela bildumari jite berri bat ematea, lan modernoagoak eta are « klasiko »tzat jotzeko aski denbora izan ez duten hainbat liburu arrakastatsu ere euskaratuz ; horietakoa da gaur egun aipatzen duguna, jatorrizkoa duela bost urte baino ez baitzen argitaratu. Baina klasiko etiketa legokiokeen erabakitzea alde batera utzirik, garbi dago liburu bikain baten aurrean gaudela eta euskaldunok bereziki arrazoi bereziki sendoak, hots, orokorrak gehi berezi batzuk, ditugula hura irakurtzeko.

Egilea, Steven Mithen, Historiaurreko irakaslea da Readingeko Unibertsitatean (Erresuma Batua) eta Arkeologiari, Historiaurreari eta gizaki primitiboari buruzko hainbat libururen egilea ere. Hortaz gain, eta Euskaltzaindian ari garenez gero bereziki notatzekoa dena, British Academy-ko kidea. Beraz, badirudi gure Jose Migel Barandiaranen oso antzekoa den egile baten aurrean gaudela, aldeak alde : historiaurrelari bat, indusketa ugari egindakoa, unibertsitateko irakaslea eta Erret Akademia bateko kide (British Academy Ingalaterrako Erregeak sortua da, nahiz eta haren eremua ez datorren guztiz bat

Euskaltzaindia bezalako hizkuntza akademienarekin, haren izen ofizial osoak argitzen duen bezala : *British Academy : The UK's National Academy for the Humanities and Social Sciences*). Eta hasirako planteamenduari helduz : Barandiaranen tankera duen Mithen jaunaren bidea non egiten da bat Azkueren bidearekin ? Bada, azken liburu honetan, non saiatzen den gizaki primitiboaren hizkuntza ikertzen (hots, hizkuntzaren sorrera) eta horretarako, aukera metodologikotzat, lehenengo eta behin galdera sorta hauei erantzuten saiatzen den : zein da musikaren sorrera ? kantatzen ote zuten gizaki primitiboek ? dantzatzen ote zuten ? zein da musikaren eta hizkuntzaren artean dagoen harremana ?

Honez gero garbi daukat neuk behintzat liburu hau eskura izanez gero gure Azkue handiak irakurri baino irentsi egingo zuela, goitik behera irentsi, planteamendu horrek eztabaida intelektualaren mailara eramanez nahi baititu berak bihotzean eta gogoan baino ez zituen lotura atsegin eta pasionalak : hizkuntza eta musika. Baina, eta hau bereziki azpimarratzekoa da, historiaurrelari bat da liburuaren egilea, ez filologo edo musikoa : Barandiaran eta Azkue, biak batera.

Liburu luzea, interesgarria, dibulгатiboa eta pasionala da aldi berean. Kultura zabala eskatzen duena irakurketa asebetegarri batentzako, baina gure kultura txikia eta meharra aberasteko bide guztiz egokia eskaintzen diguna, emandako arrazoibide eta datu guztiak zehatz-mehatz ulertzeak eta norbereganatzeak agian ahalegin handisko bat eska badezake ere. Ez da hau lekua haiek guztiak tratatzeko eta, beraz, tesi nagusiari lotuko gatazka, hura agian gehiegi sinplifikatzeko arriskua gure gain harturik : musika eta hizkuntza erabat desberdinak dira gaur egun, erran nahi baita, gizaki *modernoarentzat*, baina jatorri berbera dute eta giza eboluzioaren puntu zehatz batean bereizi ziren ; puntu hori duela orain dela 50.000 data daiteke, *grosso modo*, alegia, *homo sapiens* espeziea (arrunki Cro-Magnon gizakia izenez ezagutzen dena) sortu zenean.

Tesi hori argudio ugari aldezten du egileak : gizakiaren garunaren funtzionamenduari buruzko azterketa zehatzak eta azken-azken ordukoak, animalien portaerari buruzko azterketak (bereziki tximinoen espezieak), musika eta hizkuntzaren espezifikotasun zehatzak, indusketa arkeologikoen testigantza ugarien analisi xehea... Hizkuntzaren jatorriari buruz, auzi akademikoa gaur egun zertan den azaltzen digu, A. Wray hizkuntzalariaren teoriak guztiz bereganatuz eta hedatuz ; musikari buruz, musikologo eta etnomusikologo ugariaren ekarpenak dakartza ; arkeologiaren esparruan, zer esanik ez ; harrigarriena, agian, humanitateen esparrukoentzat, psikologo, mediku eta neurologoek egindako lan esperimentalen berri zehatz eta, niretzat, txundigarria, baita zailena ere ulertzeko.

Azken emaitza, txundigarriago oraindik : Mithenek sostengatzen du hizkuntzaren aurretik bazela gizakien artean beste komunikazio modu bat, berak *hmmmmm* deitzen duena (komunikazio *holistikoa*, *manipulatzaila*, *multimodala*, *musikala* eta *mimetikoa*). Modu hori, funtsean, musikan eta honen ezaugarrietan oinarritzen zen, duela 500.000 urte sortu zen (*homo ergaster*) eta *homo sapiens* agerti arte iraun zuen gizakien arteko komunikazio-modutzat ; modu hori da, hain zuzen ere, Neanderthal gizakiek erabiltzen zutena desagertu ziren arte, duela 30.000 urte.

Baldarki esanda : neanderthalek ez zuten hitz egiten, baina kantatu egiten zuten, kantatu eta dantzatu, gauaz, kobazuloaren aurrean, suaren inguruan. Hori da Mithenen mezua, bi hitzetan. Merezi du osorik irakurtzea.

Pruden Gartzia